

## Aeronautikako osagaien mekanizazioa. ACCENT proiektua

2011/01/18

Urtarrilaren 11, 12 eta 13an Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan, PMVII-garraioaren lehentasunaren barnean dagoen ACCENT (*Adaptive Control of Manufacturing Processes for a New Generation of Jet Engine Components*) proiektu europarraren 5. jarraipen bilera egin zen. Lan honetan Mondragon Unibertsitatearen batera, sektore aeronautikoko hainbat enpresek parte hartzen dute (Rolls-Royce, MTU Aero Engines GmbH, Avio SpA, Snecma, Volvo Aero Corporation, Advanced Prototype Research eta Industria de Turbo Propulsores, S.A.), baita sektore honekin harremana duten Europako ikerketa zentroak ere (Aachen University of Technology, L'Ecole Nationale d'Ingénieurs de Tarbes, Société d'Etudes et de Recherches de l'ENSAM, Technical University of Kosice, University of Naples).

Proiektuaren helburua da mekanizazio moldatzaileko sistemak garatzea abioetako motorren osagai kritikoak mekanizatzeko, azaleraren integritateari buruzko alderdiak funtsezkoak direla kontuan hartuta. Zehazki, hainbat materialez egindako turbina diskoen torneaketa, zulaketa eta fresaketa bidezko mekanizazioa aztertzen da, materialen artean Inconel 718, Udimet720 edo titanio aleazioak egonik, esaterako, T6Al4V. MGEPi dagokionez, set-up experimental bat prest jarri da, torneaketan zehar ebaketa parametroek turbina diskoen integritatean duten eragina aztertzeko. Dispositibo experimentalak sentsoreak ditu ebaketa indarrak, emisio akustikoak eta bibrazioak neurtzeko, CNC Fagor 8070 kontrolatik ateratako informazioaz gain.

Bilera honetan proiektuko *partner* bakoitzak lortutako emaitzak elkartrukatu ziren eta nagusiki zulagailuan eta tornuan egindako aurrerapenak erakutsi ziren.



ACCENT proiektuaren bilera